13. Se acerca la Semana Santa y también queremos disponernos a participar profundamente en el misterio de la muerte y resurrección del Señor. Lo haremos desde nuestros hogares, como Iglesia doméstica que se reúne en familia, sabiendo que Dios se presenta en medio de nosotros, aunque estemos con las puertas cerradas, para mostrarnos sus manos y costado, y traernos la paz y el don del Espíritu. Él trasciende todas las limitaciones y actúa más allá de nuestros condicionamientos de espacio y tiempo. Retransmitiremos los oficios a través de los medios de comunicación, y os animamos a participar en ellos en familia desde vuestros hogares. Os invitamos a vivirlos en espíritu de conversión, oración y agradecimiento, renaciendo interiormente en el misterio pascual de Cristo que renueva toda la humanidad y nos renovará profundamente haciéndonos resurgir de esta situación tan dolorosa. En la Misa crismal consagraremos el santo crisma y los óleos; pero la renovación de las promesas sacerdotales la pospondremos a la fiesta de Jesucristo Sumo y Eterno Sacerdote. Los calendarios de celebraciones litúrgicas en el tiempo de pascua, tanto de la diócesis, como de las parroquias y comunidades, deberán ser ajustados en la medida en que se modifiquen las restricciones actuales.

14. Queridos hermanos y hermanas. Queremos transmitir nuestra admiración y agradecimiento por vuestro esfuerzo y constancia, y animaros a seguir con paciencia y fortaleza. Que no decaigamos en la actitud responsable y el servicio constante a los demás. Que la presencia de Cristo muerto y resucitado nos mueva a entregarnos cada día, con ilusión y creatividad, siendo sembradores de esperanza, sirviendo a todos en la edificación de una humanidad fraterna según el corazón de Dios. Que la Virgen María, con su amor materno, nos acompañe y sostenga en esta tarea. Con gran afecto.

***Bilbao, 29 de marzo de 2020, V Domingo de Cuaresma***  
***+ Mario Iceta Gabicagoeascoa***  
***Obispo de Bilbao***  
***+ Joseba Segura Etxezarraga***  
***Obispo Auxiliar de Bilbao***

## **“Bakea zuei”**

### **Pastoral Idazkia pandemia dala-eta**

Anai-arreba maiteok.

1. “Asteko lehen egun haretan bertan, arratsaldean, ikasleak etxe batean batuta egozan; judu-agintarien bildurrez, atea itxita eukiezan. Sartu zan Jesus eta, erdian jarrita, agurtu ebazan esanez: «Bakea zuei». Gero eskuak eta saihetsa erakutsi eutsezan. Pozez bete ziran ikasleak Jauna ikustean” (Jn 20, 19-20). Gau baltzean, estutasuna, bildurra eta nahasketa nagusi zirala eta itxaropenaren eta biziaren atea itxita egozala, Jesus agertu jaken, bere gain hartu dituan gizadiaren zauriak erakutsiz. Geureak, geure gaixoenak, hilzorian dagozanenak diran bere zauriak erakusten ditu; atea itxita dagozala gertatzen da, eta egoera horrek askorentzat ziurgabetasun- eta etsipen-iturri dan gaur egungo konfinamendu-egoera dakarsku gogora. Izututa, noraezean, gertaerak ulertu eta kudeatu ezinik dagozan ikasleei, eskuak eta saihetsa erakutsi eta hauxe dinotse: “Bakea zuei”.

2. Une gogor eta latz honeetan, adore eta itxaropenez betetako berbak zuzendu gura deusueguz. Egoera honek giza izaeraren beraren makaltasuna eta, aldi berean, gure gizarte eta ekonomia egituren hauskortasuna agertzera emoten deuskuz. Baina, horrezaz gainera, geldiarazten daben arazo eta erronkak garaituz eta gaindituz, gizakia zailtasunen aurrean hazi egiten dala eta erabakitasunez bere burua besteen zerbitzura sormen, alkartasun eta sakrifizio handiz eskaintzeko gauza be badala erakusten deusku.

3. Jaungoikoaren Herriko kideok erantzukizun eta itxaropenez geure egin dogu egoera hau; agintari eskudunek agindutako babes-neurriak gauzatu doguz; trankiltasunez hartu doguz onartu behar izan doguzan ezohiko neurriak, besteak beste Eukaristiaren ospakizun publikoetan parte hartzeko ezintasun mingarria, eta eskuzabaltasunez bizi gura dogu danen aldeko maitasuna, hain zuzen be, honetan eta asko emon daikegun gainerako eremuetan erakusten dana: gure inguruko pertsonak, familiak, nagusi eta gaixoak, behartsuak zaindu eta eurei geure burua eskaini. Jainkoaren Hitza arretaz entzun eta bakarka eta familian otoitz eginez, sendo irauten dogu geure bidean, sendotasuna eta eroapena jadesten doguz eta geure baitatik ataraten gara, besteengan pentsatuz eta geure burua zabal-zabal eskainiz. Santuen alkartasunak biziaren ogi eta maitasun

eta batasunaren sakramentu dan Eukaristiari –eleizbarruti, parrokia eta alkarteetan ospatzen jarraitzen dogu- lotuta egotea ziurtatzen deusku.

4. Bihotzez eskertu gura dogu abade, diakono, biziera sagaratuko kide eta laikook kristau alkarteetatik egiten diharduzuen guztia fededunek bizi daberen egoera gertutik jarraitzeko eta euren beharrezko material eta espiritualetan laguntzeko. Horixe da, hain zuzen be, gure eguneroko ardua: eurakaz etenbako hartu-emonean egon, behar daberen guztirako prestasuna erakutsi, euren alde otoi ez egin eta Eukaristia eskaini, gabeziak antzeman, arintzeko eta ahulenei arreta eskaini. Eskerrik asko zuon emote eskuzabalagaitik. Gorogatu, Kurutzeko San Joanek esan ebanez, “maitasunean dabilen arimak ez dau nekatzen, ez da nekatzen eta ez dau atsedean hartzen”.

5. Pertsona nagusiei eta egoitzetan bizi diranei, eta euren artean, geure abade nagusiei, beren-bereri zuzendu gura gatzakez, adore eta kemenez betetako hitzak bialduz. Ez zaitez bakarrik sentitu; ez zaitez bildurrak, estutasunak edo ziurgabetasuneko sentipenak garaitu. Une honetan zailtasunak asko badira be, eta hainbat eremutako mugak nabarmenak, gure eskura dagozan neurri guztiak ipinten dihardugu zuoi ahalik eta arretarik onena eskaintzeko helburuagaz. Zuon biziak gure alde gastatu izana eskertu gura dogu eta orain geure maitasun eta autormena erakutsi gura deusueguz merezi dozuen zainketa eta arreta emonez. Kasu askotan ohiko presentzia fisikoa ezinezkoa bada be, zuon osasuna arriskuan jarri leiken kutsatzeko arriskua dakarrelako, honako honen bidez gure hurkotasuna, babesa eta esker ona adierazo gura deusueguz.

6. Eleizbarrutiko kuriako sail guztiek lanean dihardue, beste bide batzuetatik bada be. Fede-zabalkunde eta katekesirako ordezkariak kristau sarbideko eta eremu desbardinatuko heziketarako prozesuak aurrera egiteko lagungarri egokiak batzen eta argitaratzen dihardu. Karidade eta zuzentasunerako ordezkariak bere jarduera sendotu egin dau Caritasegaz batera pobretasun, makaltasun eta bazterketaz betetako eremu guztietan. Liturgiarako ordezkariak, gure eta gizartearen arteko hurkotasuna areagotzen eginahalak egiten diharduan komunikaziorako sailagaz batera, liturgia ospakizunak etxeetara erotzen ari da.

7. Beste hainbat erakunde eta era bateko eta besteko fededunen alkarte publiko eta pribatu, saiatzen ari da, baxotxa bere ahalmenen arabera,

egoera hau arintzen. Eleizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutuak askotariko lagungarriak eskaintzen ditu heziketa eta espiritualtasunaren arloan; Lagungo familia biderapenerako eleizbarrutiko zentroak, bere aldetik, entzute eta arreta psikologikorako baliabideak jarten ditu behar dabezanen eskura. Eleizbarrutiko ikastetxeek eta BAM Irakasle-eskola unibersitarioak on-line eusten deutse euren jarduerari, ikasleei etenbako arreta eskainiz. Eleizbarrutiko erakunde guztiek egiten dabe euren ekarpena, gainerako sail, alkarte eta erakundeakaz batera, sare sendo eta eraginkorra, gitxienez neurri batean, pandemia honek eragindako atsekabe eta kaltea arintzeko bide dan sarea, eratuz.

8. Aparteko arreta merezi dabe osasun pastoralizako taldeek eta egunotan, ospitaleetan, egoitzetan zein etxeetan, gaixoei, senideei eta osasun arloko profesionaleri arreta eskaintzeko ahalegin guztiak egiten diharduen abadeek. Bereziki, gaixoen oliadura, etenbako otoitza eta hilzorian dagozanen eta hil diranen eta euren familien aldeko arreta, grazia-, kontsolamendu- eta itxaropen-iturri dira eurentzat. Zuok zarie, euren eginkizunean buru-belarri diharduen profesionalakaz batera, zauriak arindu eta sendatzeko isurtzen dan Kristoren ukendu. Ez dogu autortu barik itzi gura kongregazio erlijiosoen lana, laguntza eraginkorra emoten jarraitzen deutse-eta, bihotzez eta maitasunez, gaixoei, familia txiroduei, bizilekurik ez daukien pertsoneri, baztertuei eta gizartetik kanporatuei.

9. Ez gendukez klausurako monasterioak ahaztu gura; hortxe dago eleizbarrutiaren hauspo espirituala. Euren bizitzaren eskaintzaren bidez, Aitari bere Semearen Gorputzeko zauriak aurkezten deutsez Espiritu Santu kontsolatzaile eta maitasun eta errukiaren iturriak eutsi gaizan une latz honeetan, gure artean senidetasun eta zerbitzuko hartu-emon barriak sortzen dituan Jainkoaren maitasunaren presentzia izateko.

10. Gure eskerrik beroena osasun arloko profesionaleri, boluntarioeri, suhiltzaileeri, segurtasun-indarrei, zerbitzu publikoeri, gaixoen eta euren familien aldeko arretan buru-belarri ari diran pertsona, alkarte eta erakundeei eta, orokorrean, herritar guztiei. Esker ona, baita be, euren politika, ekonomia, enpresa, lan eta gizarte erantzukizunetik, osasun-krisia eta familietan, ekonomian, lanean eta gizartean eragiten dituan ondorioak gainditzan lagunduko deuskuen neurriak hartuz, egoera honi aurre egiten saiatzen ari diranei. Eta gure autormena barri emoteko egitea

betetzen ari diran komunikabideei, eta ezinbesteko zerbitzuen horniketa ahalbideratzen daberen erakunde eta gizabanako guztiei.

11. Egin daigun otoitz hildakoen alde, santuen alkartasunean eta betiko bizitzan fedea autortuz. Gogorra da gure senide eta lagun maiteak badoazala ikustea, eta gutako bakotzak eta familiak gurako geunken laguntza eta kontsolamendurik ezin deutsegula eskaini sentitzea. Egunero ospatzen dogu Eukaristia hildakoen eta euren senideen alde. Hileta-mezarik antolatzeo aukerarik izan ez badozue be, jakizue geuk ospatzen dogula egunero zuon partez. Jainkoak ez gaitu sekula bertan behera izten. Geure izaera hauskor eta makala bere gain hartu eban Semea bialdu euskun Harengan bizia oparo izan gengian. Dagoeneko osatuta dagozan bere zauriak erakusten dituan Kristoren agerpenak garaitzen dau ateak itxita egozan ikasleen bildurra. Zauri horreek begiesteak bakez eta itxaropenez beteten gaitu, ikasleei gertatu jaken lez. Euren gainera putz egin eta unibertsoa barritzen dauan eta gure artean maitasun eta errukian oinarritutako hartu-emon barriak sortzen dituan Espiritu Santua emon eutsen. Ezekielen hazur sikuen irudipenean lez (ik. Ez, 37), pandemiak eragindako egoera suntsitzaille honen ostean, Espirituak sendatu eta bizia sorraraziko dau hondamendia eta negarraren lekuan. Espiritu honek, era misterioitsu baina benetakoan, deialdia egiten deutso Eleizari eta gizadi osoari, giza bizitzaren garapenerako eremu guztiak berreraikitzeo, onbideratzeo eta barritzeo.

12. Esker on berezia, krisialdian, giza eremu oinarritzko eta funtsezko lez agertzen diran familiei, bertan beti aurkitzen dogu-eta aterpea, kontsolamendua eta babesa, besteei bihotz-zabaltasunez zerbitzatzeten ikasteko eskola izateaz batera. Osasun-alarma honek gure familietan, gizartean eta ekonomian dituan ondorioak begi-bistan doguz dagoeneko, krisi ekonomiko eta sozial erara, eskuzabaltasunez eta bihotz-zabaltasunez aurre egin beharko deusagun erronka bilakatuta. Pandemia honek gizartean izten ari dan zauri sakonei aurre egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da danon ahalegina, guztion ongizatea lortzeari eta, gizabanako eta familiarik ahulenak lehenetsiz, guztiei laguntzeari begira.

13. Atarian dogu Aste Santua eta, horregaitik, Jaunaren heriotza eta berbizkundearen misterioan sakon parte hartzeo prestatu gura dogu geure burua. Geure etxeetan ospatuko dogu, familian batzen dan etxeo

Eleiza lez, gure etxeko ateak itxita badagoz be, Jainkoa gure artean agertzen dala, bere eskuak eta saiheitsak erakusten deuskuzala eta bere bakea eta Espirituaren doea emoten deuskuzala jakinda. Harek muga guztiak gainditzen ditu eta gure leku eta denporazko baldintzetatik harago jarduten dau. Eleizkizunak komunikabideen bitartez emongo doguz, eta dei egiten deusuegu zuon etxeetatik familian parte hartu daizuen. Bizi daiguzan bihotz-barritze senez, otoitz eginez eta esker onez, geure barruan, gizadia osoa barritzen dauan eta gu guztiok, egoera mingarri honetatik biztuz, sakon barrituko gaituan Kristoren pazko-misterioan birsortuz. Krisma-mezan, krisma santua eta olioak sagaratuko doguz; baina abade-agintzarien barritzea Jesukristo Abade Nagusi eta Betikoaren egunera atzeratuko dogu. Indarrean dagozan murrizketak aldatu ahala, egokitu egin beharko doguz eleizbarrutiko, parroketako eta alkarteetako Pazko aldiko liturgia ospakizunak.

14. Anai-arreba maiteok. Jaso eizue gure miresmen eta esker ona zuon ahalegin eta iraunkortasunagaitik. Dei egiten deusuegu eta adore emoten, pazientziaz eta sendotasunez aurrera egin daizuen. Ez daigula etsi besteen aldeko jarrera arduratsuan eta etenbako zerbitzuan. Kristo hil eta berbiztuaren presentziak bultzatu gaizala egunero geure burua emoten, ilusinoz eta sormenez, itxaropen-ereile izanez, Jainkoaren bihotzaren araberako senide gizadiaren eraikuntzan danen zerbitzari lez jardunez. Maria Birjinak bere ama maitasunez lagun egin deigula eta eutsi gaizala egiteko honetan. Bihotzez.

***Bilbao, 2020.eko martxoaren 29a, Garizuma aldiko V. Domeka  
+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa  
Bilboko Gotzaina  
+ Joseba Segura Etxezarraga  
Bilboko Gotzain Laguntzailea***

## **Información. Albistekak**

### **CAJA DIOCESANA DE COMPENSACIÓN**

#### **Acta de la Reunión de la Permanente celebrada el día 4 de marzo de 2020**

Asisten:

José María Ziarrusta, Administración Diocesana; Mónica Gortazar, Caja Diocesana de Compensación; Pedro Cerezo, Vicaría I; Ana Isabel del Valle, Vicaría II; Álvaro de la Rica, Vicaría III; Federico Mendizábal, Vicaría IV; Fernando Romero, Vicaría V; José Ramón Pildain, Vicaría VI y Josu Leguina, Vicaría VII.

El presupuesto provisional de ayudas para 2020 asciende a **485.562,19€**

De los **176.965,24€** solicitados por las parroquias para ayudas se han concedido ayudas por importe de **40.056,61€**

Se han aprobado préstamos FAI por importe de **36.000€**

#### **Temas tratados:**

Con motivo de las últimas las ITES (Inspecciones Técnicas de Edificios) se ha considerado incluir las casas curales en las ayudas de Alkarkutxa

#### **DISTRIBUCIÓN DE LAS AYUDAS A FONDO PERDIDO Y CONCESIÓN DE PRÉSTAMOS FAI**

- **PQ. SANTA MARIA DE MONTELLANO- GALDAMES.** Cuatro mil euros (4.000€) de ayuda y una ampliación préstamo FAI de 3.000€ para la restauración de pórtico de la Iglesia
- **PQ. SAN JUAN EVANGELISTA- BERRIZ.** Se aprobó en 2018 Ayuda 23/18-duplicada

- **PQ. SAN JUAN BAUTISTA–AXPE (ATXONDO).** Por recomendación del departamento de obras de Obispado se recomienda esperar a reuniones posteriores. (posibles subvenciones)
- **PQ SANTA MARIA DE LEMOA.** Dos mil quinientos (2.500€) de ayuda. para el mantenimiento de la cubierta.
- **PQ SAN PELAYO- BELENDIZ ARRATZU.** Mil ochocientos veinticinco (1.825€). para arreglo casa cural
- **NTRA. SRA. ASUNCIÓN-ARTEAGA.** Siete mil cuatrocientas sesenta y tres con cuarenta y uno (7.463,41) de ayuda y 3.000€ de préstamo FAI a pagar en un año. para casa cural
- **PQ SANTIAGO APOSTOL-LAUKARIZ.** Veinte mil euros (20.000€) de ayuda y (30.000,00€) de préstamo FAI para reforma de la cubierta y contrafuertes del interior.
- **PQ SAN NICOLÁS DE BARIA- ELANTXOBE.** Cuatro mil doscientos noventa y cinco con veinte céntimos de euros (4.295,20€) por arreglos ITE casa cural.
- **ANDRA MARI –MORGA (ANEJA).** La parroquia solicita 14.000€ de ayuda para la reforma de la casa cural. Se le recomienda que soliciten financiación a Alokabide, ya que se va a alquilar la vivienda.

No habiendo más asuntos que tratar, se dio por finalizada a reunión.



### Renovación de cargos en la Conferencia Episcopal

Del 2 al 6 de marzo se celebró en Madrid la Asamblea Plenaria de la Conferencia Episcopal Española (CEE), en la que participaron Mons. Mario Iceta y su auxiliar, Mons. Joseba Segura. En esta ocasión se renovaron los cargos de presidente, vicepresidente, miembros de la Comisión Ejecutiva, presidentes de las Comisiones Episcopales, presidente de la Junta Episcopal de Asuntos Jurídicos, miembros del Consejo de Economía y los presidentes de las Subcomisiones Episcopales.

Mons. Iceta resultó elegido miembro de la Comisión Ejecutiva y en sus primeras declaraciones tras el nombramiento, expresó su deseo de “colaborar en acrecentar la comunión entre las Iglesias locales con vistas a la evangelización y el servicio a los más necesitados”.

Mons. Joseba Segura, fue elegido miembro del Consejo Episcopal de Economía y, además, continuará como miembro de la Comisión Episcopal para las Misiones y la Cooperación con las Iglesias

Tal y como indican los nuevos Estatutos de la CEE, estos mandatos pasan de tres a cuatro años, excepto el de secretario general, que no se renueva ahora y que seguirá siendo elegido cada cinco años.

### Agradecimiento de la Iglesia de Bizkaia al trabajo y compromiso de las mujeres

Con motivo del Día Internacional de la Mujer Trabajadora, la diócesis de Bilbao celebró la II edición del evento *‘martxoak8mujeres’*. En el acto institucional que tuvo lugar el 9 de marzo, se reconoció la trayectoria de 8 mujeres, que representan el trabajo y el compromiso de las mujeres de la Iglesia de Bizkaia. Carmen Badiola, Nekane Villar, Pilar Larizgoitia, Edith Ulloa, Carmen Ibarra, Marian Caselles, Agurtzane Lizaso y Sor Piedad Aparicio recibieron la obra diseñada por el artista Toño Valdivieso, que

\* La información de esta Crónica Diocesana está elaborada por el DEPARTAMENTO DIOCESANO DE COMUNICACIÓN.

plasma la huella perdurable que estas ocho mujeres y muchas otras están dejando en la Iglesia y en la sociedad.

El acto, que contó con la presencia de los obispos, Mons. Mario Iceta y su auxiliar, Mons. Joseba Segura, tuvo lugar en la Casa de Espiritualidad de Begoña. La religiosa Begoña Bilbao, inició la sesión como cuenta cuentos y puso la primera nota de color en un acto *“sencillo y cercano”* en el que se puso en valor y se visibilizó la labor abnegada que han realizado y realizan muchas mujeres de nuestro entorno eclesial y social.

En el acto se reconoció el trabajo y el compromiso de las mujeres en los ámbitos que representan las 8 a quienes se honró este año. Se mostró la labor y servicio de las voluntarias de Cáritas, las mujeres con una trayectoria de servicio en el ámbito educativo y pastoral, las mujeres comprometidas con países del Sur, mujeres migrantes con un compromiso social, mujeres en el ámbito rural, mujeres con un papel significativo en la inclusión, mujeres en el ámbito de la comunicación y mujeres que llevan toda su vida al servicio de la Iglesia.

## **La Diócesis de Bilbao consumirá energía 100% verde en más de 800 instalaciones**

El 10 de marzo, el obispo de Bilbao, Monseñor Mario Iceta y el delegado Institucional en el País Vasco de Iberdrola, Asís Canales, firmaron un contrato de compra venta de energía, que permitirá a la Diócesis el consumo de electricidad, proveniente de fuentes de energía renovables, en la mayoría de sus instalaciones. En base al acuerdo alcanzado, que se prolongará durante los próximos tres años, Iberdrola suministrará de energía 100% verde a más de 800 instalaciones de la Diócesis de Bilbao, incluidas la gran mayoría de las parroquias e instituciones.

Este acuerdo de colaboración suscrito por la institución y la compañía energética se adhiere a otras iniciativas que se están llevando a cabo en varias instituciones eclesiales de Bizkaia en su apuesta por el consumo bajo criterios éticos y ecológicos. Con esta iniciativa, las parroquias e instalaciones de la Diócesis evitarán emisiones de 2.986 toneladas de CO2 a la atmósfera al año.

Tras la firma, Monseñor Mario Iceta, manifestó que *“se trata de una pequeña aportación, aunque necesaria para cuidar de la casa común”*. En este sentido, añadió, que la Iglesia *“quiere colaborar con decisión en acciones que custodien responsablemente la creación que Dios nos ha dado como un don. Su descuido en variadas formas de abuso no solo causa daños al equilibrio de la naturaleza, sino que tiene además una incidencia negativa sobre pueblos y regiones pobres y desfavorecidas”*.

### **Por una gestión ética y responsable**

*“El compromiso de instituciones como la Diócesis de Bilbao con el consumo de energía 100% libre de emisiones muestra las oportunidades de la electrificación en base al desarrollo de proyectos renovables, que están transformando el presente y el futuro energético en nuestra sociedad”*, apuntaba Asís Canales, delegado Institucional de Iberdrola en el País Vasco.

La electricidad 100% verde consumida por las instalaciones de la Diócesis de Bilbao contará con certificados de Garantía de Origen (GDOs), que validan la procedencia renovable de las fuentes de energía. En este sentido, el Obispo de Bilbao subraya que *“es una obligación gestionar con responsabilidad las aportaciones derivadas mayormente de los fieles, para el sostenimiento de las actividades de la Iglesia”*.

## **Los obispos del País Vasco y Navarra abordan el tema del coronavirus**

El 11 de marzo, los obispos del País Vasco y el arzobispo de Pamplona-Tudela, los obispos auxiliares y los vicarios generales mantuvieron una reunión interdiocesana en Vitoria-Gasteiz. En el encuentro trataron varios temas, entre ellos el de la situación creada por la crisis del coronavirus. Hablaron sobre las recomendaciones pertinentes ante la Cuaresma, la Semana Santa y demás celebraciones religiosas y civiles. Los prelados se mantienen coordinados con Osakidetza en esta cuestión.

## Entrevista al Obispo de Bilbao: “Saldremos con heridas, pero venceremos esta situación”

El 26 de marzo, el obispo de Bilbao, Mons. Mario Iceta, concedió una entrevista a la emisora diocesana Radio Popular-Herri Irratia en la que ha habló, entre otras cuestiones, de las prioridades de la Iglesia de Bizkaia que ahora son la caridad y la oración “*por todas las personas que están sufriendo este momento tan difícil*”. Ha querido transmitir esperanza y fortaleza a la ciudadanía, pero de modo particular a las personas mayores y enfermas.

Seleccionamos algunas de sus respuestas:

### **¿Cómo es la situación que se está viviendo?**

Es un tiempo desconocido para nosotros, tiempos duros, tiempos recios donde tenemos unos desafíos imponentes ante nosotros de salud y de modo derivado familiares, sociales, económicos, pero también es un tiempo de llamar a todos juntos a arrimar el hombro poniendo por nuestra parte todos los medios para evitar más contagios y para ayudar en todo lo que podamos. Es un tiempo también para la esperanza, para la fortaleza, para la paciencia, para animarnos unos a otros y seguro que entre todos vamos a vencer esta situación, Saldremos con heridas profundas, muchas personas que están falleciendo...

### **La nota positiva es que mayoritariamente se ha asumido la responsabilidad y han emergido capítulos de solidaridad**

Ciertamente, pienso que el ser humano se crece ante los desafíos. Nos ha venido esto como un *tsunami*. Nos hemos visto sumergidos en una situación difícil. Pienso que todos hemos tomado conciencia de la gravedad de la situación y con responsabilidad estamos actuando en esos dos grandes capítulos. El primero, es cómo prevenir el contagio. Mayoritariamente estamos todos en casa, llevando la situación lo mejor que podemos, intentamos seguir en contacto a través de los medios telemáticos, las redes, el teletrabajo... No nos es fácil estar en casa, hay gente que vive en pisos pequeños, vemos personas mayores con miedo, con angustia, la situación también de las residencias, de los hospitales...

El campo de la solidaridad también es importante. Cáritas ha abierto una página: lasolidaridadnosepara y mucha gente está llamando para colaborar voluntariamente. En otros ámbitos solidarios también siguen dando comidas por tupper para no contagiar... Ahí está el comedor de los franciscanos de Irala, los claretianos del Corazón de María, Cáritas y las instituciones atendiendo a los sin techo, a las personas que necesitan un cuidado especial... Los trabajadores, los cuidadores de las residencias de mayores que se están volcando... Se han multiplicado los actos y formas de solidaridad, ayuda y ánimo.

No quisiera olvidar a las personas que acompañan en Pastoral de la Salud, a los sacerdotes que están yendo a los hospitales porque les reclaman en situaciones límite. Me llena de admiración y tenemos que reconocer tantas entidades sociales y de Iglesia que siguen atendiendo a la gente y han multiplicado sus esfuerzos. Lagungo, el cementerio de Derio atendiendo a las personas que fallecen por esta situación. Se está dando sepultura con medidas tan estrictas, que las personas fallecen sin poder despedirse de sus familias, sin poder tener el consuelo espiritual en caso de los creyentes. Que sepan que el Obispo está celebrando todos los días por todas estas personas. Me gustaría dar ese abrazo grande a las personas enfermas, a los que trabajan con ellos, a las familias...

### **La propia Iglesia se ha tenido que reinventar**

Ciertamente es duro para todos vivir esta situación. La Iglesia ha tenido que tomar decisiones muy duras. Los sacerdotes siguen celebrando en casa en contacto con los medios de comunicación.... Nos debemos dar cuenta que muchos sacerdotes y personas que acuden a la eucaristía son mayores y, por lo tanto, un factor de riesgo grande. Hay momentos en los que por responsabilidad hay que tomar decisiones duras. Dios trasciende lo habitual de su presencia. En esta situación extraordinaria nos estamos haciendo presentes en todos los ámbitos en los que estábamos, pero de otras maneras.

## ¿Qué está haciendo la Diócesis de Bilbao ante la pandemia?

La Diócesis de Bilbao está redoblando los esfuerzos en varios frentes para poder atender algunas necesidades que han surgido a raíz de la crisis sanitaria que estamos viviendo. Pastoral de la Salud, en los hospitales; Cáritas, ofreciéndose a las personas más vulnerables, entre los que se encuentran los `sintecho`; Gizakia, atendiendo a las personas con adicciones; Lagungo, prestando asistencia psicológica; Pastoral Penitenciaria, acompañando en la cárcel; Liturgia, celebrando eucaristías a puerta cerrada, pero emitiendo por los medios de comunicación; Anuncio y Catequesis, elaborando materiales para este tiempo de confinamiento; Centros Diocesanos, construyendo mascarillas protectoras en 3D; presbíteros y laicos acompañando por teléfono a las personas mayores... Son algunas de las acciones que se están realizando en coordinación con otras que se están liderando desde las instituciones públicas. Recogemos aquí algunas de ellas y otras que se pondrán en marcha próximamente:

### 1. Asistencia social

Instalaciones e inmuebles diocesanos al servicio de las instituciones. La Diócesis de Bilbao ha dispuesto que se faciliten a las autoridades civiles instalaciones e inmuebles para la atención de personas afectadas en esta pandemia. Hasta el momento se ha habilitado un inmueble de una congregación religiosa y la Casa de Espiritualidad de Begoña.

Cáritas Bizkaia destina 500.000 euros para responder a la crisis social. Además del fondo solidario, el Plan también implica el refuerzo y reorientación de toda su actividad hacia el acompañamiento de las personas que se encuentran en situación de vulnerabilidad, manteniendo la prestación de los servicios de manera adaptada a las recomendaciones sanitarias y ampliando la cobertura de los mismos.

Cáritas Bizkaia ha puesto en marcha la campaña "La solidaridad no cierra. Alkartasuna beti zabalik" para promover la solidaridad y la fraternidad organizada. En este momento crítico ha se ha realizado un llamamiento explícito a la comunidad cristiana y la ciudadanía en

general en coordinación con las administraciones públicas. La campaña se coordina con las iniciativas puestas en marcha por Gobierno Vasco (Guztion Artean) y Diputación Foral de Bizkaia (#bizkaiaagara) para la creación de redes de apoyo solidario.

En los comedores sociales de Bizkaia, regentados por Cáritas y por algunas órdenes religiosas prosiguen dando comidas a las personas necesitadas. Por motivos de salud, atienden de una manera diferente, con *tuppers*.

Gizakia atendiendo a las personas con adicciones. La situación del personal sanitario y de atención a drogodependencia es, en este momento, de primera necesidad y han puesto en marcha un plan de contingencia para frenar la infección y garantizar la atención. En coordinación con el Ayuntamiento de Bilbao, la fundación diocesana está atendiendo a las necesidades de personas sin hogar que estos días se encuentran confinadas en diferentes espacios de la capital.

## **2. Liturgia**

Desde que se suprimieron las eucaristías en Bizkaia, por medio de un acuerdo con Telebilbao, los domingos y festivos la cadena emite las misas presididas por el Obispo, a puerta cerrada, desde la catedral, a las 12:00 h.

Del mismo modo, fruto de un acuerdo con Oizmendi telebista, se emite la eucaristía celebrada a puerta cerrada en la iglesia Andra Mari, de Gernika. La emisión se realiza los lunes y los jueves, a las 18:00 h.

Por otra parte, se ha puesto en marcha la iniciativa 24 horas desde el Seminario de Bilbao. Se trata de una emisión por streaming abierta durante todo el día, de manera que se puede participar en las celebraciones que tienen los 9 seminaristas desde la mañana hasta la noche.

Esta misma semana está prevista la instalación de un equipo de telecomunicaciones en la catedral de Santiago de Bilbao para poder ofrecer los oficios de Semana Santa desde allí.

### 3. Caridad y Justicia

En Pastoral de la Salud, los servicios de acompañamiento religioso y espiritual siguen en los hospitales. Hay presencia física y telefónica, tanto de personas laicas como de presbíteros acompañando a las personas enfermas. No se permite circular por el hospital, pero a través del teléfono se está apoyando tanto a pacientes como a familiares y a las personas que trabajan en el ámbito sanitario.

El Centro Familiar Lagungo además de seguir acompañando –de una nueva manera- a las personas y familias que acuden de ordinario a recibir atención psicológica, realizan ahora soporte emocional a través de videoconferencias, llamadas etc. para las necesidades planteadas desde las personas acompañantes de Pastoral de la Salud y de Cáritas. Al mismo tiempo colaboran con la iniciativa PSIKOBIZI, del Colegio de Psicólogos de Bizkaia, que se ha puesto en marcha para atender a la ciudadanía y en especial, a las personas más vulnerables en esta situación excepcional.

Acompañamiento a presos. Pastoral Penitenciaria y Bidesari prosiguen con su acompañamiento en las cárceles, ahora tres días por semana. Se reza con los presos y se les lleva ropa y ayudas económicas, sobre todo tarjetas de teléfono para que puedan llamar a las familias.

### 4. Anuncio y Catequesis

Desde el comienzo de la crisis, el Obispo de Bilbao está difundiendo *‘píldoras de esperanza’* en su cuenta de Instagram (@marioiceta) en vídeo, con el deseo de ofrecer un rayo de luz a todas las personas que, en este momento, necesitan unas palabras de aliento y esperanza.

Desde la Delegación de Anuncio y Catequesis y desde diferentes territorios de la Diócesis se han puesto en marcha para ofrecer iniciativas y materiales que puedan ayudarnos a vivir estos días. Los materiales están recogidos en la página web diocesana ([www.bizkeliza.org](http://www.bizkeliza.org)).

También han puesto en marcha una iniciativa junto a Caridad y Justicia y Cáritas en la que los niños y niñas de los grupos realizarán cartas y



dibujos con mensajes de ánimo, cercanía, comprensión... dirigidos a las personas mayores que se encuentran en las residencias.

## 5. Formación y Cultura

Centros diocesanos fabrican viseras protectoras en 3D. El Centro Formativo Somorrostro, el de Zulaibar en Arratia y San Viator, en Sopuerta se han sumado a la iniciativa del centro Tknika, para fabricar viseras protectoras en impresoras 3D para ayudar al personal sanitario de Osakidetza en la contención del Covid-19.

Visita virtual a iglesias y retablos de Bizkaia. El Museo de Arte Sacro-Eleiz Museoa, como el resto de las instituciones ofrece la posibilidad de visitar virtualmente varias de las iglesias y retablos de Bizkaia.

El Instituto de Teología y Pastoral de la Diócesis de Bilbao sigue trabajando y ofreciendo diversos materiales virtualmente. En este tiempo de confinamiento ha abierto tres secciones desde su web: inspiración en un clip, caja de resistencia y miradas creyentes. Se trata de apartados que pretenden "dar sentido a lo que nos ha tocado vivir". Del mismo modo, han transformado líneas de enseñanza presencial en virtual.

La comunicación diocesana, con las radios diocesanas Bizkaia Irratia y Radio Popular-Herri Irratia y el departamento de comunicación prosigue realizando su labor informativa y de servicio a la comunidad de manera coordinada. Radio Popular-Herri Irratia, ha incorporado a su programación habitual la emisión de la misa diaria, a las 20 h, por la 900 OM. Se sigue emitiendo la misa en euskera diariamente por la emisora Bizkaia Irratia, a las 9:00 h., ahora desde la capilla instalada en el Obispado de Bilbao. El Departamento de Medios, comprometido con los lectores de la revista Alkarren Barri-Comunicación, ha elaborado el número correspondiente a abril desde casa y sigue actualizando la página web con informaciones puntuales y compartiendo en redes la actualidad de la Diócesis de Bilbao.

El Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia te ofrece 'El Archivo desde casa' y presenta otra forma de distracción diferente. Esta vez con un paseo fotográfico por el pasado a través de sus colecciones fotográficas: variadas, curiosas, valiosas y entrañables... Fotografías, recuerdos,

historia de nuestra familia, de momentos pasados, de otros tiempos... la moda, las costumbres, las relaciones familiares, las reuniones y las fiestas, el fervor popular y la religiosidad...

## Otros temas

El 1 de marzo, Mons. Segura presidió en Madrid la misa por el Día de Hispanoamérica que se celebró con el lema "Para que en Él tengan vida" promovida por la Comisión Episcopal de Misiones y Cooperación entre las Iglesias de la que forma parte el Obispo Auxiliar de Bilbao.

El domingo, 8 de marzo, festividad de San Juan de Dios, el obispo diocesano, Mons. Mario Iceta presidió la eucaristía en la capilla del hospital de San Juan de Dios de Santurtzi, acompañado, entre otros por el Hno. Amador Fernández, superior Provincial; el Hno. Mariano Bernabé, superior de la comunidad de San Juan de Dios de Santurtzi y el Hno. José María Larrú, capellán.

El 25 de marzo, Mons. Iceta presidió la Eucaristía emitida desde la web y desde una televisión local, en la basílica de Begoña con motivo de la solemnidad de la Anunciación del Señor (Mensaje completo para la jornada en la sección de documentos de este boletín).

# ELEIZBARRUTIKO BARRIAK\*

## Karguak barritu dira Gotzainen Batzarrean

Martxoaren 2tik 6ra batzartu zan Madrilen Espainiako Gotzainen Batzarraren Osoko Bilkura. Bertan izan ziran, besteak beste, On Mario Izeta Bilboko gotzaina eta On Joseba Segura gotzain laguntzailea. Oraingoan, ondorengo karguak barritu ziran: presidentea, presidenteordea, Batzorde Eragileko Kideak, Gotzain Batzordeetako presidenteak, Gai Juridikoetarako Gotzain Batzordeko presidentea, Ekonomia Batzordeko kideak eta Gotzain Azpibatzerdeetako presidenteak.

On Mario Izeta gotzaina Batzorde Eragileko kide izendatu eben eta izendatu barritan egin ebazan adierazpenetan bere nahia adierazo eban: "lekuko Eleizen arteko alkartasuna gehitu, ebanjelizazioari eta behartsuenen aldeko zerbitzuari begira".

On Joseba Segura gotzaina Ekonomiarako Gotzain Batzordeko kide izendatu eben eta, horrezaz gainera, Misinoetarako eta Eleizekiko Lankidetzarako Gotzain Batzordeko kide izaten jarraituko dau.

Espainiako Gotzainen Batzarraren Estatutu barrien arabera, hiru urterako ziran agintaldi honeek lau urterako izango dira, orain barrituko ez dan eta aurrerantzean be bost urterako izango dan idazkari nagusiarena izan ezik.

## Bizkaiko eleizaren esker ona emakumeen lan eta konpromisoari

Emakume Langilearen Nazinoarteko Egunaren inguruan, Bilboko Eleizbarrutiak "*martxoak8emakume*" jardueraren II. ekitaldia ospatu eban. Martxoaren 9an ospatu zan ekitaldi instituzionalean, zortzi emakumeren ibilbidea autortu zan, Bizkaiko Eleizako emakumeen lana eta konpromisoa irudikatuz. Carmen Badiola, Nekane Villar, Pilar Larizgoitia, Edith Ulloa, Carmen Ibarra, Marian Caselles, Agurtzane Lizaso eta Sor Piedad Apariciok Toño Valdivieso artistak diseinatutako lamina jaso eben. Irudi horrek

\* Elizbarrutiko Barriak egitea Komunikazinarako Elizbarrutiko Sailaren ardurea da.

zortzi emakume honeek eta beste hainbeste eta hainbestek Eleizan eta gizartean izten diharduen arrasto iraunkorra irudikatu gura dau.

Ekitaldi instituzionala Begoñako Gogarte Etxean ospatu zan, On Mario Izeta gotzaina eta On Joseba Segura gotzain laguntzailea bertan zirala. Begoña Bilbao monja eta ipuin-kontalariak emon eutsan lehenengo ikutu koloretsua emakume askok eleiz eta gizarte inguruan egiten diharduen egundoko lanari dagokion balioa emon gura izan eutsan ekitaldi *“xume eta gertukoari”*.

Ekitaldian, aurton omenaldia jaso eben 8 emakumeek ordezkutzen dabezan zortzi eremuetan emakumeek egiten daben lana eta erakusten daben konpromisoa autortu zan: Caritaseko emakume boluntarioen lan eta zerbitzua; hezkuntza eta pastoral arloan zerbitzua eskaintzen daben emakumeak; Hegoaldeko herriekin konprometitutako emakumeak; gizarte konpromisoa daben emakume etorkinak; landa-eremuko emakumeak; etorkinen gizarteratzean konprometitutako emakumeak; komunikazioaren arloan aritzen diran emakumeak eta bititza osoa Eleizaren zerbitzura emon daben emakumeak.

## **Bilboko Eleizbarrutiak energia %100 berdea kontsumituko dau 800 toki baino gehiagotan**

Martxoaren 10ean, On Mario Izeta Bilboko gotzainak eta Asis Canales Iberdrolaren Euskal Herrirako Ordezkeri Institutuzionalak energiaren salerosketarako hitzarmena sinatu eben. Honen bitartez, Bilboko Eleizbarrutiak energia barriztagarrien iturrietatik datorren argindarra kontsumituko dau bere instalazino gehienetan. Datozan hiru urteetarako lortutako akordioaren arabera, Iberdrolak energia %100 berdez hornituko ditu Bilboko Eleizbarrutiko 800 instalazino inguru, tartean parrokia eta erakunde gehienak.

Erakundeak eta konpainia energetikoak sinatutako lankidetzahitzarmen hau Bizkaiko hainbat eleiz erakundetean garatzen diharduen ekimenei eransten jake, erizpide etiko eta ekologikoen arabera kontsumoaren alde eginez. Ekimen honen bitartez, Eleizbarrutiko parrokia eta instalazinoek atmosferara urtean 2.986 tona CO2 isurtzea saihestuko dabe.

On Mario Izeta gotzainak sinaduraren osatean adierazo ebanez, *“ekarpen txikia da, baina ezinbestekoa danona dan etxea zaintzeko”*. Honen haritik, bere esanetan, Eleizak *“alkarlanean jardun gura dau eta Jainkoak doe lez emon deuskun kreazinoa arduraz zainduko daben erabagiak hartu eta eraginkortasunez jokatu. Askotan, gure gehiegikeriek, izadiaren oreka kaltetu egiten dabe eta, aldi berean eragin txarra dabe herri eta lurralde pobre eta ahulenetan”*.

### **Kudeaketa etiko eta arduratsuagaitik**

Asis Canales Iberdrolaren Euskal Herrirako Ordezkaritza Institutuzionalak adierazo ebanez, *“Bilboko Eleizbarrutiak eta beste hainbat erakundeek %100 isurketa bako energia kontsumitzeko hartu dauan konpromisoa, gure gizartearen orain eta etorkizun energetikoa aldatzen diharduen egitasmo barriztagarrietan oinarritutako elektrifikazioaren aukeren isla da”*.

Bilboko Eleizbarrutiko instalazioek kontsumituko daben energia %100 berdeak Jatorrizko Bermearen ziurtagiriak izango dabez, energia-iturrien jatorri barriztagarria balioetsiz. Hau dala-eta, Bilboko Gotzainak nabarmendu ebanez, *“Eleizaren jardueri eusteko, neurri handi batean eleiztarrengandik datozen ekarpenak erantzukizunez kudeatzea ezinbestekoa da”*.

## **Euskal Herriko eta Nafarroako gotzainek coronavirusaren gaia aztertu eben**

Euskadiko gotzainek eta Iruña-Tuterako artzapezpikuak eta gotzain laguntzaile eta bikario nagusiek alde aurretik jarrita eben eleizbarruti arteko batzarra ospatu eben martxoaren 11n Vitoria-Gasteizen. Hainbat gai aztertu eben, besteak beste coronavirusaren gaia. Garizuma aldiko, Aste Santuko ospakizunetarako eta gainerako ospakizun erlijioso eta zibiletarako bidezko aholkuen inguruan berba egin eben. Kontu honetan, gotzainak Osakidetzagaz koordinatuta dagoz.

## **Alkarrizketa Bilboko gotzainari: “Zauriakaz, baina gaindituko dogu egoera hau”**

On Mario Izeta Bilboko gotzainak Herri Irratiko ‘Egunon Bizkaia’ irratsaioan egin ebazan adierazpenak martxoaren 26an. Une latz honeetan Bizkaiko Eleizeak alkartasuna ekintzen bidez adierazo eta otoitz egin behar dauala esan eban, batez be, une honetan txarren dagozanan alde. Itxaropen eta sendotasunez jokatzeko eskatu deutse herritar guztiei eta beren-beregi nagusi eta gaixoei.

Hona hemen erantzun batzuk:

### **Ze egoera bizi dogu?**

Ez dogu sekula honako aldirik ezagutu, une gogorra bizi dogu, latza eta egundoko erronkak doguz aurrez aurre osasunaren arloan eta honi lotuta, familian, gizartean, ekonomian... Era berean, danok bat egin eta alkarri laguntzeko aldia da, eginahalak eginez jente gehiago kutsatu ez daiten eta ahal dogun guztian lagundu daigun. Itxaropenerako, sendotasunerako, pazientziarako, alkar adoretzeko aldia be bada eta, holan, danok alkartuta, egoera hau gainditu egingo dogu, zauri sakonak geratuko bajakuz be, lagun asko eta asko hiltzen ari da-eta...

**Alderdi positiboa, gehienak erantzukizunez jokatzeko ari dirala eta alkartasuna agertu da han eta hemen.**

Benetan, gizon-emakumeok erronken aurrean hazi egiten garala uste dot. Tsunami baten antzera heldu jaku hau. Egoera zailak inguratu gaitu. Danok egoeraren larritasunaz jabetu garalakoa nago eta erantzukizunez jokatzeko dihardugu kapitulu nagusi bi honeetan. Lehenengo, kutsadura zelan prebenitu. Gehien bat etxean gagoz, egoerari ahalik eta ondoen aurre egiten, bitarteko telematikoen, sareen, telelanaren... bidez hartu-emonari eusten. Ez da erraza etxean egotea; asko eta asko pisu txikietan bizi da; nagusiak bildur dira, larri; egoitzetako, ospitaletako... egoera be kezkarria da.

Alkartasuna be funtsezko kontua da. Caritasek “alkartasunabetizabalik” orrialdea zabaldu dau eta jenteak deitzen dihardu boluntario lez

laguntzeko. Beste eremu batzuetan be alkartasuna gauzatzen da eta, esate baterako jatorduak banatzen jarraitzen dabe, baina jatekoa ‘tupperretan’ sartuz, ez kutsatzeko... Iralako frantziskotarren jantokia, Mariaren bihotza klaratarrak, Caritas, erakundeak... bizilekurik ez daukienak, aparteko zainketa behar dabenak... artatzen ari dira. Nagusien egoitzetako langile eta zaintzaileek buru-belarri dihardue ekintzak biderkatuz eta alkartasuna, laguntza eta adorea emonez.

Ez neukez ahaztu gura osasun pastoraltzan laguntzen dabenak, muga-mugako egoeretan euren presentzia eskatzen dabela-eta, ospitaleetara joaten diran abadeak. Nire miresmena eta autorpena jenteari arreta eskaintzen, eta kasu gehienetan, laguntza hori areagotu egin daben, gizarte eta eleiz erakundeei, Lagungori, birusaren eraginez hiltzen diranei arreta eskeintzen deuten Derioko kanposantuari... Gorpuak neurri zorrotzak hartuz hobiratzen dihardue; eta pertsonak euren senideak agurtu barik hiltzen dira, fededunen kasuan, kontsolamendu espiritual barik. Jakin daiela gotzainak egunero ospatzen dauala Eukaristia guztien alde. Besarkada estua emon gura neuskie gaixoei, eurakaz lan egiten dabenei, familiei...

### **Eleizak berak be ‘birsortu’ egin behar izan dau**

Benetan, egoera hau gogora da danontzat. Eleizak erabagi gogorrak hartu behar izan ditu. Abadeek etxean ospatzen dabe Eukaristia komunikabideetarako, baina Eukaristietara joaten dan abade eta lagun asko eta asko arrisku-faktore handi dirala. Une batzuetan, erantzukizunez jokatu eta erabagi gogorrak hartzea dagokigu. Jainkoak bere ohiko agerpena gainditu egiten dau. Ezohiko egoera honetan, hainbat eremutan agertzen dihardugu.

### **Zer egiten dihardu Bilboko Eleizbarrutiak pandemiari aurre egiteko?**

Bilboko eleizbarrutiak eginahalak egiten dihardu askotariko arloetan, bizi dogun osasun-krisiaren eraginez sortu dan hainbat beharrizani erantzuma emoteko. Osasun Pastoraltzak, ospitaleetan; Cariasek, makalenei, besteak beste “bizilekurik ez daukienei”, laguntza eskainiz; Gizakiak, drogazaletasunak dabezanei arreta eskainiz; Lagungok, arreta

psikologikoa emonez; Kartzela Pastoraltzak, kartzelan lagun eginez; Liturgiak, Eukaristiak ospatuz, pribatuan eta komunikabideetatik emonez; Fede-zabalkunde eta Katekesiak, lagungarriak prestatuz konfinamendu aldirako; Ikastetxeek, maskara babesleak 3Dan eginez; abade eta laikoek, telefonoz pertsona nagusiei lagun eginez... Horretan dihardue, besteak beste, arduradun eta erakundeek, herri erakundeetatik garatzen diharduen beste jarduera batzukaz koordinatuta. Hona hemen egiten ari diran batzuk eta martxan jarriko diran beste batzuk:

## 1. Gizarte laguntasuna

Bilboko Eleizbarrutiak herri agintarien esku itzi ditu bere lokal eta eraikinak, pandemia honen biktimen arretarako erabili daiezan. Orain arte, kongregazio erlijioso baten eraikin bat eta Begoñako Gogarte Etxea atondu dira helburu horretarako.

Bizkaiko Caritasek 500.000 euro jarri ditu gizarte krisiari aurre egiteko asmoagaz. Diru-funts solidario honetaz aparte, martxan jarri dauan egitasmo honen bidez, jarduera guztia sendotu eta ahulezia handian dagozanengana bideratu gura da, bere zerbitzu guztiak eskaintzen jarraituz, baina osasun-gomendioetara egokituz eta estaldurak zabalduz.

Bizkaiko Caritasek “La solidaridad no cierra. Alkartasuna beti zabalik” kanpaina jarri dau martxan alkartasun eta senidetasun antolatua sustatzeko. Une kritiko honetan, beren-beregi dei egin jako kristau alkarteari eta, orokorrean, herritar guztiei, administrazio publikoekin koordinatuta. Kanpaina hau Eusko Jaurlaritzak (Guztion Artean) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (#bizkaiagara) laguntza solidariorako sareak sortzeko martxan jarri dabezan ekimenakaz koordinatzen da.

Caritasek eta hainbat ordena erlijiosok kudeatzen dabezan Bizkaiko gizarte jantokietan otorduak banatzen dabez orain be. Osasun-arrazaok dirala-eta, arreta aldatu egiten da eta jatekoa *tupperretan* emoten dabe.

Gizakiak drogazaleei arreta eskaintzen deutse. Osasun arloko beharginen eta drogazaletasunei aurre egiten ari direnen egoera benetan larria da une honetan eta infekzinoa geldiarazoteko eta arreta bermatzeko kontingentzia-plana jarri dabe martxan. Bilboko Udalagaz koordinatuta,



eleizbarrutiko fundazioak egun honeetan uriburuko hainbat lekutan konfinatuta dagozan pertsonen beharrizanei erantzuten ari da.

## **2. Liturgia**

Bizkaian Eukaristiak ospatzeari itzi jakonetik, eta Telebilbao kateagaz lortutako akordioari esker, domeka eta jaiegunez kate honek Gotzaina buru dala eta ateak itxita, katedralean eguerdiko 12:00etan ospatzen diran mezak emoten ditu.

Era berean, Oizmendi telebista kateagaz lortutako akordioa dala-eta, Gernikako Andra Mari eleizan ateak itxita ospatzen dan Eukaristia emoten da, astelehenetik eguenera, arratsaldeko seietan.

Beste alde batetik, “24 ordu Bilboko Seminariotik” ekimena be martxan jarri dabe. *Streaming* bidez Seminarioko egun osoko jarduerak emoten dira, 9 abadegaiek goizetik gauera arte izaten dabezan ospakizunetan parte hartzeko aukera emonez.

Aste honetan bertan, telekomunikazioen ekipoa jarriko dabe Bilboko Santiago katedralean, bertatik Aste Santuko eleizkizunak emoteko.

## **3. Karidade eta Zuzentasuna**

Osasun Pastoraltzari dagokionez, arreta erlijioso eta espiritualerako zerbitzuek jardunean dihardue. Ospitaleetan bertan dagoz eta telefono bidez be aritzen dira, bai laikoak eta bai abadeak be, gaixoei lagun eginez. Ezin dira ospitaleetan hara eta hona ibili, baina telefonoz eskaintzen deutse babesa bai gaixoei, bai senideei eta bai osasun arloan jarduten daben beharginei be.

Lagungo Familia Biderapenerako Zentroak normalean arreta psikologikoaren bila hurreratzen jakezan gizabanako eta familiei laguntzen jarraitzen dau –beste era batera-, laguntasun emozionala eskaintzen dabe bideokonferentzien, deien, e.a., bidez Osasun Pastoraltzako eta Caritaseko laguntzaileen artean aurkeztutako beharrizanei erantzuteko. Era berean, PSIKOBIZI Bizkaiko Psikologoaren Kolegioagaz alkarlanean dihardue herritarrei, eta batez be ezohiko egoera honetan makalenei, arreta eskaintzeko.

Laguntasuna presoei. Kartzela Pastoraltzak eta Bidesarik karteletan laguntza eskaintzen jarraitzen dabe, orain astean hiru egunez. Otoitz egiten da presoekin eta erropak eta diru-laguntza eroaten jake, batez be telefono-txartelak familiei deitu deieen.

#### **4. Fede-zabalkundea eta Katekesia**

Krisialdiaren hasieratik, Bilboko Gotzainak "itxaropen printzak" eskaintzen ditu bere Instagram kontuan (@marioiceta) bideoan, une honetan adore eta itxaropen hitzak behar dabezan guztiei argi-izpia eskaintzeko nahiarekin.

Fedde-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzatik eta Eleizbarrutiko hainbat lurraldetatik hainbat ekimen eta lagungarri eskaini dabe egun honeek bizitzen laguntzeko. Lagungarri honeek [www.bizkeliza.org](http://www.bizkeliza.org) eleizbarrutiko orrialdean jasota dagoz.

Karidade eta Zuzentasuna eta Caritasek batera sustatu dabek ekimenaren bidez, taldeetako mutiko eta neskatoek gutun eta marrazkiak egingo dabez adore, gertutasun, ulermenezko... mezuekin egoitzetan dagozan pertsona nagusiei bialtzeko.

#### **5. Heziketa eta kultura**

Eleizbarrutiko ikastetxeek bisera babesleak egin dabez 3Dan. Somorrostro, Arratiako Zulaibar eta Sopuertako San Viator ikastegiek bat egin dabe Tknika zentroaren ekimenagaz 3D inprimagailuetan bisera babesleak egin eta Osakidetzako beharginei Covid-19ari aurre egiten laguntzeko.

